

Aretxagazeta

Aretxabaleta ● 2000ko urriaren 11n ● 199. zka.



**Perretxikuak,
plater preziatua**

horma armairuak



tolesgarriak

*horma armairu
irristagarriak*



AZKARATE AROEZTEGIA


ARETXABALETA 943 77 01 24
BERGARA 943 76 47 19

*Ateak, leihoak,
horma armairuak, tarimak
eta parketak*

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea. Tf.: 943 76 18 93 • BERGARA



Alkondarak,
prakak,
pijamak eta
korbatak.

50 urte
Atxabalta
jazten...

ASENSIO

Igarri dozu grebien arrastoik? Ze erizten dotzazu grebiai? Zeozer lortuko da?



Agustin Zugasti

Dendara gutxi faten naz, baina ondiokan ez dot igarri. Greba eittia ondo dau, gasolinia oso karu dau ta.



Isidro Urkia

Ez dot igarri. Kaminuak libriau dauzela bakarrik igarri dot. Derrigorrez ein biharrekuak die. Madrildik konpondu biherrekue da gai hori.



Petra Olmedo

Ointxe urten dot kalera. Ondo dau greba eittie. Indarra denon artien ein bihe da gura douna lortzeko.



Jaione Barandiaran

Ez dot igarri. Ondo dau greba eittia, baina ez dakit zeozer lortuko dan. Batzuk asko eskaketan daue eta beste batzuk ez daue emun gura.

ESKUTITZAK



HIRIBURU ITXURAKO HERRIA

Donostia, Gasteiz eta Bilbo beraren antza hartzen ari da gure herria. Kotxearekin hara eta hona eta ezin aparkalekua topatu. Gero eta larriagoa da aparkalekuen egoera gurean. Egia da, kotxe kopurua asko igo dela azken urteotan. Lehen famili bakoitzean kotxe bakarra eta bi kotxe izatea zen normalean, orain, ostera, lau sendiko famili batean hiru edo lau kotxe izatea ez da zaila.

Hala ere, arazoa larriagoa da herriko zenbait auzotan. Gorbea, Aralar, eta Zاراia kaleetan esaterako. Astegunetan industrialdeko langile asko uzten du bertan kotxea, eta kale bazter guztiak kotxez gainezka egoten dira. Astebukaeran auzota-

rrentzako lekua badagoela esan daiteke, justu samar bada ere.

Industrialdeko pabiloiek ez al dute lurpeko aparkalekua? Beteta al daude aparkaleku guztiak? Horixe jakin gura nuke baten batek galdera horri erantzuterik izango balu.

Kontuak kontu, aparkalekuen arazoa orokorra dela esan daiteke. Gurea moduko herri batean ez da samurra kotxe barik bizitzea. Dena dela, neurri desberdinak hartzen hasi beharko dugu. Garraio publikoaren zerbitzua hobetu eta gehiago erabiltzen hasi, beharbada? Lurpeko aparkaleku publikoak egin? Edo Japonian bezela kotxea erosi aurretik garajea erostera derriortu? Ez da ez, konponitzeko arazo samurra.

A. B. 16302935

Aretxagazeta

199. zenbakia
2000ko urriaren 11n.

Durana 11, 151 postakutxatila
Aretxabaleta
Tel: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarteak.

Lehendakaria: Edorta Mendieta.
Erredakzio-kontseilua:
Begoña Arenaza, Arrate Arkauz,
Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia, Mireia Uribetxebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre.
Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:
Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.
Kolaboratzaileak:
Mikel Arroia, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Loramendi E. E., Udala.

Banatzaileak:
Aitor Urrutia, Iratxe Arbulo.

Inprimategia:
Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 2.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94.
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntzaz



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru
Aldundia



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



PLAZAKO ERAIKUNTZA EUSKO JAURLARITZARI EMANGO DIO UDALAK

1998an, udalak, herriko plazako eraikuntza Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailari lagapenean ematea erabaki zuen. Kurtzebarri eskolak, bertan, DBHko klaseak emateko asmoa dago. Orain, oster, Eusko Jaurlaritzak DBHko eskolak ematen diren eraikuntza guztiak bereak direla esan dio udalari eta hau ere bere izenean gura duela. Udalak, eskaera ondo aztertu ondoren, baietza eman zion irailaren 25ean egindako osoko bilkuran, baina DBHko klaseak emateko den bitartean. Noizpait DBHko eskolarik ez dela ematen ikusiko balitz, barriro udalaren eskutara pasatuko litzateke. Aipatutako eraikuntza, bestalde, klaseak emateko egokitu beharrean dago eta lanak abendua inguruan hastea espero da.



Gero eta ur gutxiago dago Urkulun

Urkuluko urtegia bere ahalmenaren %58an dago

Irailaren 22an sartu ginen udazkenean baina eguraldiari dagokionez ez da aldakuntza nabarmenik somatu, nahiz eta San Migel-letan euri apur bat egin. Aurtengo uda lehorra izan da eta udazkenari ere horrelaxe eman diogu hasiera.

Gipuzkoako Ur Kontsorzioak irailaren 18an jasotako datuen arabera Urkulu urtegiko ura 327,18 metrora zegoen, 6.309.000

m³.rekin bere ahalmenaren %63,09an. Urriaren 9an, barrez, 326,34 metrora, bere ahalmenaren %58,71an. Baju samar egon arren ez da larritzeko datua, iaz ere antzera zegoen eta. Euria egiten hasten denean, gainera, badaki ondo egiten ere, iazko azaroan lau egunetan ia 72.000 m³.tan gehitu baitzen Urkuluko ur bolumena, bere ahalmena %58,96tik %59,68ra pasatuz.

BAKE EPAITEGIKO LANGILEAK HARTUKO DIRA

Eusko Jaurlaritzari bake epaitegiko langileak eskatzeko, aspaldi egin zuten hitzarmena Aretxabaleta eta Eskoriatzako udalek, 7.000 biztanletik gorako herriei tokatzen zaien bezala. Epaitegiko idazkaria eta jakinarazpenak egingo dituen langilea hartuko dira eta datorren urtean lanean hastea espero da. Bake epaitegiko lanak orain arte udaleko idazkariak egiten zituen: ezkontza zibilen paper kontuak... hemendik aurrera dagokien langileek egingo dituzte.

PAUSOKARI EMAN ZAIO UDAL HAUR ESKOLAREN ARDURA

Irailaren 25ean egindako osoko bilkuran, Aretxabaletako Pausoka kooperatibari eman zitzaion udal haur eskola gestionatzeko ardura. Deialdira aurkeztu zen bakarra izanik eta eskatutako baldintzak betetzen zituela ikusita, ez zen inolako arazorik egon izen-dapena aho batez onartzeko. Momentuz urte beterako hartu badu ere Pausokak ardura, lau urte arte luzagarria izango da.

©kindegia - Gozolegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta
Bertako okina

Mobiliario
ARENAZA

. ALTZARIAK
. DISEINUA
. APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Tel.: 943 77 11 76

PREBARIKAZIO DELITUA EGIN EI DU ARETXABALETAKO UDALAK

Joan zen astean komuni-
kabideek adierazi zute-
nez, Euskal Herriko
Auzitegi Gorenak kontra
egin dio Aretxabaletako
udalari, 1997an udaleko
langileei %1az gain,
20.000 pta.ko soldata igo-
era onartzeagatik.
Badirudi, administrazio
zentralak %1eko igoera
baino ez duela onartzen
eta prebrikazio delitu-
ztat jo da lege hauste
hau.

Aretxabaletako udale-
txean momentuz ez da
lege hauste horren inola-
ko berririk jaso eta Xabier
Mendizabal idazkaria
harritura azaldu da solda-
ta igoera hau Eudelek,
alderdi politikoez, sindi-
katuek eta diputazioak
adostutakoa izateaz gain
azkenengo urte guztietan
eraman delako aurrera.
Gainera, Euskal Herriko
udaletxe guztietan ez
bada, gehienetan aplika-
tzen den igoera da.
Informazioaren arabera
Aretxabaletako udalak
ordaindu beharko ditu
epaiketa gastuak, baina
delituaren berri izaten
denean abokatu bat hartu
edo ez eta nola aurre egin
erabakiko da.

Haurren txokoa liburutegian

Orain hilabete inguru infor-
matizazioa heldu bazen udal
liburutegira, orain altzari
berriak jarri dituzte. Altzari
aldaketa aprobetxatuta, zen-
bait konponketa ere egin di-
ra: batetik, beheko lurra eta
goiko pisuko gela bat mar-
gotu dituzte, beheko pisuan
argi berriak ipini dira, orde-
nadorentzako altzariak ero-
si eta goiko pisuko mahaia
ere konpondu dira. Bestetik,
umeentzako txoko berezia
sortu da bi sofa txiki eta ma-
hai batekin. Joseba Lopez de
Armentia liburutegiko ardu-
radunaren esanetan: "Txoko
honekin umeak erosoago
egotea gura dugu eta gura-
soak ere ume txikientzako
txoko bat dagoela ikusita,
euren seme-alabekin etor-
tzera animatuko direlakoan
gaude. Lehendik ere baziren

haur txikientzako liburuak,
baina erabilera haundiagoa
eman gura zitzaien, txiki-
txikitatik ikasten baita libu-
ruak maitatzen".

Koldo Mitxelenarekin hitzarmena

Donostiako Koldo Mitxelena
liburutegiarekin, bestalde, hi-
tzarmena egin da liburute-
gion arteko mailegua egiteko.
Koldo Mitxelenako katalogoa
interneten kontsulta daiteke
eta norbaitek hango liburu
bat gurako balu, Aretxaba-
letako liburutegian eskaera
egin eta 24 ordutan bertan
izango luke. Eskatutako libu-
ruak 30 eguneko epean buel-
tatu behar dira eta ezingo
dira Aretxabaletako liburute-
gitik atera. Bidalketen gas-
tuak, gainera, Koldo Mitxe-
lenak bere gain hartuko ditu.



Bi sofa txiki eta mahai bat jarri dira umeentzat liburutegian



ARIZMENDIK HITZARMENA SINATU DU GASTEIZKO DIOCESANAS ESKOLAREKIN

Joan zen urriaren 5ean,
Arizmendi kooperatibak
hitzarmena sinatu zuen
Gasteizko Diocesanasko
eskolarekin. Hitzarmen
horren helburuak, gizarte-
ari kalitatezko hezkuntza
zerbitzua eskaintzea,
eredu partehartzaile baten
aldeko apostua egitea, eta
baloreetan sustraitutako
hezkuntza eredua bultzat-
zea dira.

Bigarren hezkuntza eta
Lanbide heziketaz ardura-
tzen den Diocesanasko esko-
la, Gasteizko lau ikaste-
txek osatzen dute eta en-
presekin proiektu eta hi-
tzarmen asko ditu eginak.
Arizmendik, hitzarmen
horrekin, hezkuntza tek-
nikoko goi mailako ikaste-
txea sortu gura du De-
bagoienan, Diocesanasek
alor honetan duen espe-
rientziaz baliatuz.

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tel.: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA
KALEFAZIOA

Tel.: 943 79 07 34
943 79 31 87

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
ARETXABALETA

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11
ARETXABALETA

IV. gastronomia eta folklore jaialdia urriaren 22an

Urriko laugarren domekan, hilaren 22an hain zuzen, IV. gastronomia eta folklore jaialdia egingo da Aretxabaletan. KIUBek antolatutako jaialdi horretara herriko taldeez gain, kanpoko 5 talde ere etorriko dira: Arrasatetik, "Corazón de Encina" extremadurakoa, Ermuatik, "Casa Cultural Andaluza" andaluziarra, Laudiotik "San Fernando" Gaztela eta Leongo taldea eta Donostiatik Galiziako "Casa de Galicia" eta Errioxako "Casa Rioja". Euskal Herria, bestalde, ez du talde bakarrak ordezkatzeko Loramendi Dantza Taldeaz gain, Gatzagako Jakion egongo da kontserbak saltzen, baita Aretxabaletako atzeratuen aldeko taldea, Aratz, ere txorizo, buskantza eta beste hainbat dastatzeko produktuekin.

Goizean kalejira egingo da kiroletxetik herriko plazaraino eta ostean, abesbatza eta dantza taldeek plazan eskainiko dituzte euren emanaldiak. Baina seguru asko urdaiazpikoa, arrain errea, pulpoa, "fino" ardoa edo ribeirua izango dira jendea erakarriko dutenak plazara.

VI. patxaran lehiaketa

Aurten, jadanik, VI. patxaran lehiaketa egingo da. Gero eta arrakasta haundia duen lehiaketa honetan parte hartu gura duen atxalbarrak, ostiralean, hilak 20, goizeko 11etatik ordu biak bitartean udaletxera eraman behar du patxarana. Kanpotarrek, ostera, egunean bertan aurkeztu beharko dituzte herriko plazan eta sari banaketa arratsaldean egingo da.



Jaki goxoak eta patxarana izango dira protagonista urriaren 22an




Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (2. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68



Lubia
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15
☎ 943 79 34 28 • Faxes: 943 79 34 28

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA



Lurrindegia
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

VIH/HIESA DUTEN GAIXOEN ESKUBIDEAK ESKATU DIRA

Joan zen irailaren 23 eta 24an VIH minusbaliadun mahai nazionalak bere III. Batzarra egin zuen Madrilen. Ezinduen mahai nazional hau Vih/Hiesa duten gaixoak defendatzeko sortu zen eta ezintasuna neurtzeko gobernua hartutako irizpideekin ez daude batere ados. Izan ere laguntza ekonomikoak gutxitzeaz gain beste eskubide batzuk ere ukatzen dizkiete gaur egun indarrean dagoen dekretuak. Ezinduen mahaiak, Vih/Hiesa duten gaixo eta presoek ezindu bezala diru laguntzetarako daukaten eskubidea lehenbaiten onartu eta atzeratutako pentsioak ordaintzea eskatzen dio gobernuari.

BIZTANLE ETA ETXEBIZITZEN ERROLDA BERRITUKO DA

Datorren urteko apirila eta uztaila bitartean, Aretxabaletako biztanle eta etxebizitzaren errolda berrituko da. Iazko udaberrian, herriko katastroa eguneratu zen Bergarako erregistroan eta datorren urtean erroldari tokatuko zaio txanda.

Gizabidea Fundazioak datozen urtetarako planak aurkeztu zituen



Datorren hirurteko planaz informatu zuen Gizabidea Fundazioak

Gizabidea Fundazioak 1999.-eko memoria eta datozen urtetarako egitasmoak aurkezteaz gain, lehendakari berriaren aurkezpena ere egin zuen, joan den hilaren 4an egindako prentsaurrekoan.

Jesus Mari Herrastik, azken 10 urteotan fundazioaren lehendakaria izan denak, agur esan zion orain arteko karguari. Era berean, lehendakari berria aurkeztu zuen: Javier Gantxegi bergararra.

Gantxegik datozen hiru urtetako planak azaldu zituen. Kooperatiben egoera ona dela kontuan izanda, horrek hezkuntza eta ikerketarako dirusarrerak haundiagoak izatea ahalbidetuko duela esan zuen. Fagor tal-

detik, esaterako, urteko 400 milioi inguruko dirusarrerak jasotzea espero ditu Gizabideak datozen hiru urteotan. Sarrera horiek bailarako hezkuntza zentruetara eta ikerketara bideratuko dira. Horretaz gain, datozen urteotan, hainbat inbertsio izango dituzte ikastetxeetan. Horien artean, Eskola politeknikoan egingo den aulario berria.

Arizmendi Topaketak

Prentsaurrekoaz bukatzeko, XIV. Topaketak aurkeztu ziren. Datorren azaroaren 30ean ospatuko dira. Urtero moduan On Jose Mariaren omenez egiten den lehiaketako irabazlea jakinaraziko da, eta ekitaldi akademikoa ere ospatuko da.

KOLONBIAKO KOOPERATIBAK LAGUNTZEKO DIRULAGUNTZA

Orain bi aste Kolonbian lanean dagoen, Susana Gomez arrasatearrak udaletxera bisita egin zuen. Udalak Kolonbiako kooperatibismoa bultzatzeko 400.000 ptako dirulaguntza eman zuen, eta proiektua nola garatzen ari den azaltzera etorri zen Susana.

Proiektuaren helburu nagusia Bogotako Andeatoko eskualdean kooperatibak bultzatzea da. Horretarako ikerketa sozioekonomikoa eta bideragarritasun plana egiten hasiak dira. Era berean, bertako nekazarietarako kooperatibismoaren inguruko kursoak antolatu dituzte. Datorren urtean, gainera, bertako nekazari liderrak hona etortzeko asmoa dute kooperatibismoa ezagutzeko.

Proiektuak Aretxabaletako Arrasateko eta Oñatiko Udalen laguntza jaso du, baita Fagor kooperatibarena ere. Udalak laguntza gehiago eman ala ez aurkeztutako txostena aztertu ondoren erabakiko du.



FOTO

Urkiola

ARGAZKIAK

Herriko plaza, 5-behea
Tel.: 943 79 39 20
ARETXABALETA

**Bataioak
Jaunartzeak
Ezkontzak**

**Albunak
Argazki kamarak
Markoak...**

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

HAURRAK



Umeendako
moda

Lezama merkatal
zentrua, 15
Tel.: 943 77 14 86
ARETXABALETA

■ LARRIÑOKO ELIZA AZAROAN INAUGURATUKO DA

Larriñoeko elizaren konponketa lanak udarako bukatu baziren ere, inauguraketa azaroan egingo da, data oraindik zehaztu barik egon arren. Kanpo aldetik besterik ez da konpondu eliza, habeak berriztu ziren, batzuk erabat apurtuta zeudelako, eta teilatu osoa ere bai, tximistorratz berria jarri. Elizpea ere txikundu zen, eta bertako frontoia konpondu eta margotu egin ziren. 12 milioiko aurrekontua izan dute lanak eta Donostiako Gotzaitzia, Diputazioa, Aretxabaletako Udala eta auzokideak egingo dira gastuen kargu.

Larriñoeko elizan, arte aldetik, aipatzekoak dira sakristian dagoen Errosarioko Amabirjina, kera-mikazko eskuak garbitzeko ontzia eta sarreran dagoen bataioko ponte.



Jubilatu eguna jai giroan ospatu zen

Zapatu honetan ospatu zen aurtengo jubilatu eguna, jai giroan ospatu ere. Salda eta meza ostean, bazkari ederra egin zuten kiroletxean eta 255 bat jubilatu batu ziren bertan. Denen gustuko menua izan ez bazen ere, gehienak oso gustora azaldu ziren, helburua, gainera, elkarrekin egon eta kontu

batzuk kontatzea zen. Dantzaldia eta opariak ere ez ziren falta izan, batzuk, gainera, ederrak: Tenerifera bidaia Isaac de Diegori tokatu zitzaion, telebista M^a Dolores Osinagari eta Mikroondasa, Pilar Jausorori. Afaria, barrez, Teofila Sanchezentzat izan zen eta 20.000 pta.ko balea, Agustín Iturberentzat.



JUBILATUEK BIDAIA ANTOLATU DUTE ERRIOXARA

Basotxo elkarteko jubilatuak bidaia antolatu dute datorren zapatarako, hilak 14, Errioxara. Arnedora joateko asmoa badago ere, tartean beste txoko batzuk ere ikusiko dira Logroño euren artean.



ESPAINIAKO ARMADA DEBAGOIENAN

Azken egunotan Espainiako armada Euskal Herrian dabil maniobra militarrik egiten, Bizkaia aldean hain zuzen. Joan zen astean, bestalde, Arrasateko udalak faxa jaso zuen Debagoienara etortzeko asmoa duela esanaz. Aretxabaletan ez da jaso horrelakorik, baina ez litzateke harrizkoa izango egun hauetako batean gure artean soldaduak manibratan ikustea, lehen ere behin baino gehiagotan etorri izan dira eta.



Aretxabaletan lur sail txikia duen, 250 m²ko etxea salgai. Prezio interesgarria.

Maalako Errabala, 31 behea
Tel.: 943 77 13 02



Aramaion 300 m² dituen baserria, 2000 m²ko lur sailarekin salgai.

Maalako Errabala, 31 behea
Tel.: 943 77 13 02



optika

Loramendi, 10
☎ 943 79 98 21

Jose Mari
bodegaioa

Eguneko menua

Nafarroa, 6
☎ 943 79 20 45
Aretxabaleta

San Migelei gainbegirada

Begiak itxi orduko joan ziren San Migel jaiak. Gainbegirada botatzeko orduan, barriz, zapore gazi-gozoa utzi digute. Gozoa jaiak ederto pasatu ditugulako: eguakotxean koruko kantu hotsak Durangoko otxotea eta Golden Apple Quartet taldeekin eta zapatuan euskal giro bikaina.

Ortuko produktu biologikorik ederrak, epaimahaia- ren ustetan behintzat, Jose Lonbide atxabaltarrak izan zituen. Loramendiren eskutik talo goxo-goxoak das- tatu genituen, baina Murrux- kixo ere ez zen atzera geratu pintxo ederrak eskainiz. Bazkarian, barrez, 450 lagun

inguru batu eta bapo jan zuten marmitakoa. Arratsal- dean, dantzak izan ziren nagusi, tartean, Juanito Urretari omenaldia, hunki- garria benetan. Domekan, euria nagusi, baina baita herri kirolak eta umeen jo- kuak ere. Musean barriez, le- henengo saria Gatzagara joan zen, Pequeño eta Zes- terok eraman zuten, eta bi- garrena, Iñaki Arana eta Mo- destorentzat izan zen.

Zapore gazia, bestalde, atxabaltar eta lagun bati agur esan geniolarako. Iñaki Elorza "Peru" k, alai- a eta jai- zalea izanik, San Migelak aukeratu zituen agur esate- ko. Gero arte, Peru.



■ Jose Lonbiden produktuek jaso zuten 1. saria, hori bai itxura!



■ Gustura ibili ziren umeak buruhaundi eta erraldoien atzetik.



■ Durangoko otxoteak eguakotx ilunkara girotu zuen.



■ Interes handiz jarraitu zuten gazteek artisauen lana.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

HAMABOSTEAN BEHIN



■ Hiru txerritxoek jaberik topatu ete zuten?



■ Hori bai jendetza marmitakoa jateko. Hain goxoa izan ete zen?



■ Euriaraz beldurtu barik, ikuskizun polita eskaini zuten kirolariek.



■ Juanito Urreta eta emazteak omenaldi hunkigarria jaso zuten. "Peru"ri, bestalde, agur esan genion tristura haundiz.



■ "Pequeño" eta "Zestero" irabazleak, Iñaki Arana eta Modestorekin.

PAGALDAI

**Opari denda
Lurrindegia**

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14

BENGOA URDAITEGIA

*Bertako okelak eta
mortzilak*

Durana, 9
Tel.: 943 79 19 79




Udalatx
I**n**MOBILIARI**A**

Maalako Errabala, 27- beheha ezk.
20500 ARRASATE
GIPUZKOA
Tel.: 943 79 59 99

Etxebizitza berriak salgai Aretxabaletan

- Etxeak, lokalak,... saldu-erosi
- Tasazioak
- Fiskal Aholkularitza
- Errentamenduak
- Kontratuak

Emozionaturik plazaratu zen Juanito herriaren aurrera, ez zen eta gutxiagorako. Berak Murrukixon egin duen lana ere ez da gero gutxiagorako izan. 76 urteko gizona, egunero ez bada ere, sarri-sarri joaten da oraindik mendira eta berak dioenez, "Jaungoikoak ematen badit osasuna, gorputzak indarra eta emaztearen baimenaz, mendian ikusiko nauzue".



Juanito Urreta Mendizalea

■ **Egunero joaten zara mendira ?**

■ Ez, ez. Orain hiru egunetan gimnasia joaten naiz eta lehen mendira joaten nintzen, normalean gainera bakarrik. Orain, ostera, ez naiz bakarrik joaten ausartzen.

■ **Nondik datorkizu mendira joateko zaletasuna?**

■ Lehenengo Bolibarko aitarekin perretxikotan joaten hasi nintzen eta gero aitarekin Kurtzebarri eta Orkatzategi aldera. Bilbora ikastera joan nintzenez, han "Alpino Club de Bilbao" taldeko bazkide zen lehengusu bat neukan eta harekin hasi nintzen urteeratoak egiten. Nik uste, lehengusu hau izan zela mendizaletasuna sortu zidana. Soldadutzan egiten nengoela neu ere "Bilbao Alpino Club"eko bazkide egin eta 100 mendiatako lehiaketa egiten hasi nintzen.

tzen, Bilbo eta Santander aldeko mendietara joanez. 1953an bukatu nuen lehiaketa hau. Aretxabaletara bueltatzerakoan UDAko bazkide ere egin nintzen.

■ **Kanpoko mendietara ere joan izan zara?**

■ Bai, 1951n hasi nintzen kanpora joaten. Abuztuan sei egun bakarrik izaten genituen oporrak, eta Elias Otero eta biok Arantzazutik bueltan Uharte-Arakil, San Donato eta Aralarrera joan ginen, Zaldibin bukatuz gure bueltatxo. Hurrengo urtean Belagoara izan zen ibilaldia. 1953an, barrez, "Circo de Piedrafita"ra heldu ginen, baina orain bi orduan egiten den bidaia, orduan bi egun behar izan genituen Sallentera ailegatzeko. Mendian bi egun egin eta buelta, edurra egin zigun eta. Han, nire lehenengo hiru milakoa egin nuen.

■ **Emazteak inoiz lagundu al dizu mendira?**

■ Bai, bai, beti. Emaztea, ezagutu ere, mendian ezagutu nuen. Herrietako mendizale taldeen artean harreman handia zegoen orduan eta ibilaldi asko antolatzen genituen batera, eibartarrek, plaentxikoekin eta biok mendizale taldekoak izanik ezkondu aurretik ere hara eta hona joaten ginen.

■ **Noizpait galdu al zara mendian?**

■ Ene... bai, bai. Behin Alabita inguruan dagoen Aizgorrira buzoi bat jartera joan ginen Mariano Otero, Luisito Barrutia, Paul Zuazabeitia... sei-zortzi bat lagun guztira. Lainoa eta edurra zen eta buzoi jarteko urik ez, iturria nahiko urruti geratzen zen eta. Hamarretakoa egin, botatik ardoa edan eta denok marmita batean

txiza egin genuen buzoi jarteko masa egiteko. Jarri ostean, Mariano Oterok berari jarraitzeko esan zigun, ordu erdi bat ibili ginen barrero hasierara bueltatzeko.

■ **Murrukixon lanean noiztik?**

■ Murrukixoko bazkide eurek egin ninduten. UDAtik banandu zenean ia Murrukixoko bazkide izan gura nuen galdetu eta lehenengo bazkide egin ninduten. Beraz, hasiera hasieratik nago. Gazteekin antolatutako urteeratan oso pozik ibiltzen nintzen ni.

■ **Zer sentitu zenuen omenaldi egunean?**

■ Ene... ez nekien non nengoeren ere, laino baten gainean egon nintzen. Opari guztiak gustatu zitzaizkidan baina pozik haundiena Iñurragi anaien pioletak eman zidan.

Jolastu nahi dugu!!!

Hasi da ikasturte berria eta kalean gora eta behera ikusten ditugu haurrak motxila erraldoiak bizkarrean daramatzatela. Eskapariateak testu liburuz jositak daude, eta supermerkatuetako pasillo luzeak eskolarako materialez leporaino daude. Baina... non daude jolas egiteko gonbidapenak? Zergatik ez daude jolas egiteko eskariak?

Badirudi jolas egiteko epea udarekin batera amaitu dela, eta udazken eta negu ilunak, ikasteko gonbitea besterik eskaintzen ez digutela. Jolas garaiari jartzen zaion "muga" hau ulertzen zaila iruditzen zait, kontuan izanik haurrek jolas egiteko gogo berdintsuak dituztela urte guztian zehar. Hortaz, non dago gakoa?

Esan genezake, gizarteak ez duela kontuan hartzen jolas egiteak haur baten garapen prozesua aberasteko duen ahalmena. Haur batentzat, jolas egitea, arnasa hartzea bezain garrantzitsua da. Jolasaren bidez, modu naturalean, haurraren potentzial guztiak garatuz doaz. Hala nola: afektibitatea, alderdi psikomotorea, adimena, irudimena, zentzumenak, gizarteratzeko abileziak eta hauen guztiengatik ondorioztatu daitezkeenak.

Jolasak ez dauka gure gizarte konpetitibo horretan, merezi duen aipamena. Denbora pasa hutsa izango balitz moduan, jolasa, haurren egunerokotasunetik baztertu egiten dugu, beste ekintza akademikoei esparrua utziaz.

Esan bezala, ikasturtea hasi berri den honetan hezkuntza ez formalak duen garrantzia aldarrikatzera nator. Gaiari adituek esaten duten moduan, "jostailurik garrantzitsuena, jolas egiteko gogoa da" eta honetaz, haurrak ondo hornituak daude. Ezin esan, gauza bera, ordea, geratzen zaien denboraz...


Esandakoak esanda, jolasaren garrantziaz hausnartzeak merezi duela koan nago.

Eider OTXOA INDA



Maritxu
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53

 **ANDRA**
MARI
Aholkularitza


- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26

“ A R I N S A ”

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa "EO-10"
Tel.: 943 79 62 80/Fax: 943 79 76 19



Udazken honetan estimatu egongo dira perretxikuak.

Perretxikuak batzearen gozamena

Udazkena sasoi oparoa da gurean. Udako berotasunean loratutako fruitu asko, udazkeneo euriekin heldu eta jateko gertu azaltzen dira. Hurrak, intxaurrak, gaztainak, mizpialak... baina guztietan preziatuenak perretxiku eta onddoak dira.

Perretxikuzale ugari dago gure artean. Batzuk egun pasa joaten dira, naturaz gozatu eta bitartean zerbait topatzen bada ondo

baino hobeto. Badaude beste batzuk, barrez, goizean goiz jaiki eta eurak bakarrik dakizkiten txokoak aztertzer joan ohi direnak, ahal bada, gainera, inork ikusi barik. Aurtengo iraila eta urrian euri gutxi egin eta ez ei da perretxiku sasoi ona izango, hala ere sukaldeetan, batez ere elkarte gastronomikoetako sukaldeetan ez da faltako perretxiku tortilarik, seguru egon hortaz.



Aurten jaso diren lehenengo onddoak, gutxi baina itxura ederrekoak.

Iraila eta urria ei dira perretxikuak batzeko hilabete onenak. Udaberrian ere ateratzen dira baina ez udazkenean beste. Aurten-go irailan, osteran, ez ei da ezer agertu eta urrian ere bakarren batzuk. Uda lehorra izan da, eta udazken hasieran ere ez du euri larregi egin, perretxikuek, barrez, euri ugari behar dute. Perretxikuzaleak urrian agertuko ete diren zain daude, izan ere udazkenaren aurrera doa eta oraindik ezer haundirik batu barik...

Euriaz gain ilargiak ere badauka zeresanik perretxikuen agerpenarekin, ilberri denean gehiago azal-

du ei dira eta. Horrek, barrez, mendira doan guztiak perretxikuak topatuko dituenik ez du ziurtatzen, toki egokien barri izan eta batzen ere jakin egin behar delako.

Batzearen zirrara

Era askotako perretxikuzale eta batzaileak daude. Batzuk, perretxiku bila propio baino mendi eta basoaz gozatzera joaten dira, eta tartean perretxikuak jasotzen dituzte. Beste batzuk, mikologiarako zaletasuna dela eta batzen dituzte. Mikologia perretxikuak aztertzen dituen zientzia da eta hauek, batu ostean, liburutetan kontsultatu ei dituzte

etxera ekarritako espeziearen ezaugarri guztiak. Azkenengo, badaude perretxikuzale peto-petoak. Hauek ez dira perretxikuak jatearren joaten basora, ezta mikologiaz interesatuta dudelako, beste zerbaiten bila doaz: Basoak ezkutatzen dituen sekretuak aurkitzeko dakarren zirraren bila, poltsa hutsa betetzeak dakarren asetasunaren bila, lagunaren aurrean batuak erakusteko dakarren poztasunaren bila.

Inguruko perretxikuak

Juan Jose Lasaga, "Aramaixo", mutikotan hasi zen perretxikotan, gustatu eta ikasi, gainera. Gure inguru-

ruan perretxiku mota asko ei dago, baina batu, betikoak egiten ditu Aramaixok: gibel urdiña, onddoa, saltsatsua edo saltsa perretxikua eta korostia. "Bai perretxiku asko daude eta liburutetan diotenez gehienak jangarriak, baina nik, badaezpada, betikoak eta ondo ezagutzen ditudanak bakarrik batzen ditut".

Jateko perretxikuen artean bikainak, onak edo erdipurdikoa daude eta sasoi honetan preziatuenetakoa onddoa da. "Udazkenean nik onddoak bakarrik batzen ditut". Arrisku mailaren arabera ere sailkapena egin daiteke: toxikoa, pozoitsua edo hilgarria. Badaude batzuek, toxikotasuna kentzeko egosi egin behar direnak, baina badaude baita hilgarriak direnak ere "amanita phalloides" esaterako. Gure inguruan, udazkenean batez ere, asko azaltzen da "amanita phalloides" delakoa. Hilgarria bada ere ezagutzeko ere samurra da, kolore horiska izaten du eta erdian eraztuna, behean, barrez, esfera itxurako bolba. "Ez dut sekula sustorik izan, ni beti segurura joaten naiz eta" dio Aramaixok. Izan ere perretxiko baten aurrean zalantzarik txikiena izanez gero ez jatea da onena.

Batutako perretxikuekin zer?

Aramaixok, batutako perretxikurik, oraindik behintzat, ez du inoiz saldu, susak bai, baina perretxikuak ez. "Batutako perretxikuekin afariak egiten ditugu Muru-Alden, oparitu ere egin izan ditut eta etxean konjelatu ere bai". Onddoekin, gainera, jaki asko eta goxoak prestatu daitezke: onddoekin bete-




tako piperrak, onddo entsalada, onddo nahaskia... Aramaixoren esanetan, denetik prestatu daiteke onddoekin.

Perretxiku lekuak, isilpeko sekretua

Udazkeneko perretxikuak pinudietan agertzen dira gehienbat. Zuhaitz motaren arabera, gainera, perretxiku ezberdinak hazten dira. Gamusak, esate baterako, pago artean azaltzen dira, batzuetan pinu artean ere egon arren. Horrela bada, zuhaitzak sarritan lagungarriak izaten dira zein perretxiku mota den jakiteko.

Ugaztei, Kurtzebarri edo

Bolibar aldeko basoetara jotzen du jendeak perretxiku bila. Baina perretxikuzale peto-peto bati perretxiku lekuen gainean galdetzea pekatua da. Bakoitzak bere lekuak izaten ditu, ondo isilpean gordetako lekuak. Horrek ematen dio, gainera, perretxiko batzeari zirrara eta emozioa. Goizean goiz jaiki, inork ikusi barik mendira joan eta ahal den perretxiku guztiak batu. Gutxi daudenean, aurtengo udazkenean letxe, bizkorrenak lortuko ditu dauden apurrik etxera eramatea. Barra-barra agertzen direnean, bestalde, azkenengoak ere topatu ei du zer edo zer. "Perretxiku garaian



jende asko ibiltzen da basoan, asko, gainera, "domingeroak", ezjakinak, onddoa hankapean hartu arren konturatu ere ez direnak egiten" dio Aramaixok. "Aurten, ordea, ez dago perretxikurik". Hala eta guztiz, Aramaixok aurtengo lehenengo onddoak batu ditu aste bukaeran, gutxi baina eder-ederrak.

Juan Jose Lasagak oraindik ez du erabaki nori emango dion berak dakizkien perretxiku lekuen berri. Normalean etxekoei edo lagun bati izan ei da, perretxikuak batzeko afizioa duenen bati. "Nire semeari galdetu non dagoen perretxiku lekurik onena, ondo asko daki hark, etxeko konjeladorean noski".

Perretxikuak batzen hasteko...



Zelan bereizten dira perretxiku jangarria eta pozoitsua? Ez dago aparteko araurik. Euren ezaugarri botanikoen bidez ezagutzeta da irtenbide bakarra. Perretxiku, batzuk gainera, pozoitsuak izan ez arren toxikoak dira eta hauek jaterik ere ez da komeni. Hala eta guztiz ez da larritu behar, nahikoa da eta liburuetan aurki daitekeen aholkuak jarraitzea eta mikologiaz dakien norbaiten laguntza. Hori bai, urrezko arau bat izan behar da gogoan: perretxiku baten aurrean zalantzarik txikiena izanez gero, ez jatea da egokiena.

Perretxikuak ezagutzen hasteko basora joatea da onena, eta perretxikuzale baten laguntzarekin bada hobeto. Erakusketa eta hitzaldietara joatea edo liburuetan kontsultatzea ere ondo etortzen da. Bukatzeko gogoan izan behar da, perretxiku arriskutsuenetako batzuk bolba, eraztuna eta lamina zuriak izaten dituztela, beraz, horrelako ezaugarriak ez jatea da zentzuzkoena.




Futbola

Asteburu txarra lbarrako zelaian. Preferenteak, bigarren erregionalak eta Euskal ligako jubenilek galdu egin zuten etxean. Preferenteak etxean partidurik galdu barik zeraman, baina Beti Ona taldea 1-3 nagusitu zitzaion asteburuan. Bigarren mailako erregionalak ere ez zuen zorte haundirik izan, eta 2-3 galdu zuen Zestuauren aurka. Azkenik, Euskal ligako jubenilei Bermeo nagusitu zitzaion, 1-2.




Frontenis

Frontenis txapelketa hasiko da Pilarika zubian. Datorren hilaren 14an jokatuko dira frontenis txapelketako lehen norgehiagokak. Hamabi bikote arituko dira lehian: hiru Bergarakoak, Oñatiko bat, sei Arrasateko eta bi Aretxabaletoakoak. Partiduak kiroletxean izango dira zapatu arratsaldetan baina Iturrigorrin ere jokatu daitezke astean zehar izanez gero. Txapelketa abenduaren 2an amaituko da.



Pilota

Usurbilgo pilota txapelketan Errasti anaiak finalera. Errasti anaiak Usurbilgo pilota txapelketako finalera iristea lortu dute, final aurrekoa Parro II Solozabal bikotearen aurka 16-22 irabazi ondoren. Finala gaur, eguaztena, jokatuko dute Izagirre-Astigarraga bikotearen aurka. Gaueko 10etan izango da Usurbilen bertan. Txapelketa horrez gain, Gipuzkoako klub arteko txapelketa ere jokatzen ari da bikotea.



Xakea

Atxabaltarrak Sestaon bikain. Esteban Romero, Fran Miguel eta Aitor Alkaide Sestaoko XVI. nazioarteko xake Openean izan dira asteburukaren. Lan polita egin dute hirurek. Esteban hirugarren mailako lehena izan zen. Aitor Alkaidek, barrez, bostgarren bukatu zuen, lehenengo sailkapeneko lehen bostekin berdinduta gelditu ondoren. Fran, bestalde, 12. gelditu zen absolutuan. Txapelketan hainbat profesional izan zirela ikusita, lan txukuna egin zuten.

Enrique Nieto bergararra Udako preferente taldeko entrenatzaile berria da. Gogotsu eta ilusioz beteta ekin dio futbol denboraldia-ri. Lan egiteko gogoz etorri da. Bere ustetan emaitzak lanaren fruitu dira.

■ **Nola hasi du denboraldia preferenteak?**

■ Denboraldi hasiera ona izan da. Aurre denboraldian ez genuen partidurik irabazi, baina taldeak lan dinamika eta taktikak ulertu eta onartu dituen, dena ondo doa. Bost partidu jokatu ditugu. Bi irabazi, bi galdu eta bestea berdindu egin dugu.

■ **Ondo moldatu zara talde berrira?**

■ Bai. Hasiera-hasieratik nolakoa naizen erakutsi dut, eta taldekideok alkar gero eta lehenago ezagutu, azkarrago egokituko gara talde dinamikara.

■ **Zein helburu ditu taldeak aurrean dugun denboraldirako?**

■ Normalean helburuak dirua eta aurrekontua duten

klub haundiek ezartzen dituzte. Gure kasuan jokalariek jartzen dituzte helburuak, beren esfortzuari esker sailkapenean gorago edo beherago egongo baidakara.

■ **Udako jokalaria izandakoa zaitugu. Nolakoa izan da itzulera?**

■ Gogoz itzuli naiz. Gainera, hemen jokalaria izan nintzen, noizbait Udako entrenatzaile izango nintzela ere pentsatu nuen. Eta orain hemen nago.

Udako jokalaria izan nintzen, bedarrezko zelaian jokatzen genuen, eta entrenatu, barrez, haiesko zelaian.

■ **Zer gurago jokalaria ala entrenatzaile izatea?**

■ Orain entrenatzaile moduan dakidan guztia jakinez gero, jokalaria izatea gustatuko litzaidake.

■ **Entrenatzaile lanetan**

Enrique Nieto Preferenteko entrenatzailea

esperientziarik baduzu?

■ Bergarako talde gazteak entrenatzen hasi nintzen. Gero Bergarako erregionala entrenatu nuen. Talde horrekin preferente mailara igo genuen, eta gero hirugarren mailara. Hemen bi urte egin eta beste norbait erreleboa emateko ordua iritsi zela pentsatu nuen.

■ **Bi urte nahikoa dira, hortaz, talde bat entrenatzeko.**

■ Taldean jokalaria aldaketa haundirik ez badago, eta taldeak maila berdina mantentzen badu, nik uste dut baietz, aldaketak beharrezkoak direla.

■ **Bergaran hartutako esperientzia lagungarria izango zaizu hemen.**

■ Bai, esperientzia izatea oso garrantzitsua da. Erregional eta preferente mailan elkarte batean ala bestean egon oso antzekoa da.

Gogor lan egitean dago mamia. Horrez gain, entrenatzaileak dakien apurra jokalariei ondo komunikatzen jakin behar du.

■ **Nolako entrenatzailea da Enrique Nieto?**

■ Pertsona arrunta naiz, eta batez ere, lan egiten duen jendea gustatzen zait inguruan. Emaitzak lanaren fruitu direla uste dut.





Sidneyra joango diren Gipuzkoako elbarrituen aurkezpena izan zen hilaren 3an Donostian

Joseba Sidneyra bidean da

Atzo, hilaren 10ean abiatu zen Joseba Larrinaga Sidney joko paraolimpikoe-tara. Hogeita hiru ordu luzetako bidaia izango du Sidneyra iritsi aurretik. Tartean Madril, Londres eta Bangoken eskala egin beharko du.

Bidaia neketsua izango den arren, izugarrizko ilusioa eta gogoia ditu Josebak beretzat bigarrenak izango diren joku hauetarako. Gogoan izango duzue, orain lau urte Atlantako jokoetan zilarra eskuratu zuela atle-

ta atxabaltarrak. Oraingo honetan ere helburua lehenengo hiruren artean egotea du Josebak. Probarik garrantzitsuena maratoia izango da. Bertan emaitzarik onena lortzeko, gogor entrenatzen dihardu azken asteotan, batez beste egunean 25 km inguru eginez.

Azken proba

Maratoia jokoetako azken proba izango da. Hilaren 29an korrituko da Sidneyn bertan. Tartean aklimatatu eta entrenamenduekin ja-

rraituko du Josebak. Korritzeko eguna heldu bitartean, dena den, Sidney hiri eta inguruak ezagutzeko ere aprobeztatuko ditu momentu libreak.

Pedro Mari Azkargorta entrenatzailea ere Sidneyn izango da, Josebari azken aholkuak emateko. Azkargortak hilaren 15ean irten-go du Australiarantz.

Josebak ahalegin guztiak egingo ditu podiumean egoteko. Gure partetik behintzat zorterik onena Sidneyn!

■ BEHOBIA-DONOSTIARA JOATEKO AUTOBUSA

Azaroaren 12an ospatuko da Behobia-Donostia lasterketa herrikoa. Aurten ere autobusa antolatutako da Aretxabaletatik, eta ondoren, Aiako Elkano jatetxean bazkaria izango da. Bidaia eta bazkariaren diru kopurua 6.000 pta da. Izena Arlutz tabernan eman beharko da, azaroaren 5a baino lehen, aurrez 1.000 pta ordainduz. Autobusean Behobiara joatea bakarrik gura duenak, joan-etorri osoa ordaindu beharko du. Irteera ordua goizeko 8etan izango da Azbeko geltokitik.

■ KLUB ARTEKO PILOTA TXAPELKETA

Gipuzkoako klub arteko pilota txapelketan burubelarri sartuta daude herriko pilotariak. Azken norgehiagokan herriko bost bikotek partidua irabaztea lortu zuten, ez ordea, jubenilek. Bigarren mailako kadeteek Mata-Iturbe 22 Orbegozo-Lujanbio 20 irabazi zuten; Beste horrenbeste egin zuten 2. mailako seniorrek: Altube-Kortabarrria 22 Olano Belloso 16; seniorretan Lasagabaster-Alzola 22 Ulacia-Treku 2. Maila berean Mugika-Uriarte 22 Bergara-Aranburu 0. Errasti anaiek 22 Huizi-Unanue 13 irabazi zuten. Bigarren mailako jubenilek Uriarte Oion 14 Zubikarai-Lopez 22 galdu zuten.

Lasai

Mirian Manteca
MASAJISTA

Masaje terapeutikoan
Posturen azterketa eta
egokitzean
diplomatua

Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 etxabea
20550 Aretxabaleta

Tel.: 943 77 04 34

IRIARTE

Umeen
denda
eta
lentzeria




Durana, 8 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 10 96



Andoni Altube dugu gaztetxeko logotipo lehiaketako irabazlea. Eskuz egin zuen logotipoa, kolore larua eta baltza erabiliz, letrak, barrez, ordenagailuz. Eskulanak gustatzen zaizkiola aitortu digu, batez ere zeramika.

Andoni Altube

"Beti izan dut eskulanetarako afizioa"



- **Gaztetxeko logotipo lehiaketa irabazi duzu. Nola animatu zinen parte hartzera?**
- Gaztetxeko asanbladan dauden lagun batzuekin afari bat izan nuen, eta bertan logotipo batzuk egiten hasi ginen. Gero animatu egin nintzen, eta etxean jarraitu nuen logotipo nahiko txukuna atera zitzaidan arte.
- **Gustura gelditu zinen egindako lanarekin?**
- Bai. Denbora gehiago izanez gero, beti hobetu daiteken arren.
- **Nolakoa da?**
- Hiru pertsonaje ageri dira dantzan, eta borobil baten barruan AGA jartzen du.
- **Eskuz egin duzu?**
- Letrak izan ezik beste guztia bai.
- **Zein kolore erabili dituzu?**
- Larua eta baltza.
- **Esku ona duzu marrazketarako?**
- Beti gustatu izan zaizkit eskulanak. Baina nire afiziorik haundiena zeramika izan da.
- **Zeramika egiten duzu, hortaz?**
- Lehen gehiago, zeramika klaseak ematen ere aritua naiz.
- **Beste lehiaketa batzuetara aurkezteko gogorik bai?**
- Bai, denbora izanez gero gustatuko litzaidake.
- **Zer da zailena logotipo bat egiterakoan?**
- Ideia pentsatzea, eta horri papelean itxura ematea.
- **Sariarekin zer egin pentsatu duzu?**
- Bai, afaria egingo dut lagunekin.
- **Gaztetxera joaten zara?**
- Noizean behin. Dena dela, sortu zenean dexente hartu nuen parte.
- **Nolakoa izan beharko litzateke gaztetxe bat?**
- Ekintzak, ikastaroak, kontzertuak... antolatzen dituen leku bat.
- **Ogibidez?**
- Elektrizista.
- **Lanbidez aldatzekotan?**
- Nire lana ez nuke aldatuko, baina enfermero eta sukaldari lanak gustatzen zaizkit.
- **Afizioak?**
- Eskulanak, irakurtzea, zinea... betikoak.
- **Pelikula bat.**
- Blade runner. Zientzia eta fikziozkoa da.
- **Non biziko zinake gustura?**
- Aretxabaletan bertan, eta baserritxo batean hobeto.

MAITE AGUILERA logopedia bulegoa

- Ahotsaren berreziketa
- Ahoskatze arazoak
- Hitzmoteltasuna
- Mintzamina eta hizkuntza atzerapena
- Afasiak

Tel.: 943 71 50 70 / 658204076

Dorleta, 10 4 ezk ESKORLATZA

Etxabe harategia

Durana 4

☎ 943 79 16 61



FELIX
PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea

☎ 943 77 00 33/79 42 56

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea

Angelines
AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

ZATOZ LORAMENDIRA ☆ ☆ BERTAN AURKITUKO GAITUZU ☆ ☆ ZATOZ LORAMENDIRA

FARMA



Parafarmazia



- ▮ Haurrentzako produktuak eta elikagaiak
- ▮ Dermokosmetikako produktuak
- ▮ Sanitatezko produktuak
- ▮ Sendagai naturalak
- ▮ Produktu ortopedikoak
- ▮ Produktu dietetikoak

... eta gainera: **Kontsulta naturala**

Loramendi, 8

20550 ARETXABALETA ☆ Tel.: 943 77 18 18



ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

ESTETIKA


GARBIKETAK

Lehor eta busti garbiketa


Mota guztietako jantzien garbiketa

Loramendi, 6

20550 ARETXABALETA

Tel.: 943 79 53 61

ZATOZ LORAMENDIRA ☆ ☆ BERTAN AURKITUKO GAITUZU ☆ ☆ ZATOZ LORAMENDIRA

Kalitateak mugarik ez

ARGI-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
 Zigorrola, 1 8. Pabilioia
 Tel.: 943 77 11 30
 ARRASATE

TXARTELA

multi

Visa



Internet



Telebanka



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Zubiari begira

Horrelaxe gaude guztiok, zubi luzea noiz iritsiko begira. Ibai zabal bateko zubia izatea gustatuko litzaiguke, inoiz bukatzen ez den horietakoa. Dena dela, ezingo gara kexatu, lau eguneko jaia ez da gutxi eta.

Ondorengo protagonistek behintzat gustura hartuko dituzte jai egunok. **Iraia Aginagalde eta Kepa Errastik** bai behintzat. San Migeletan jo ta ke aritu ziren kazetari lanak egiten. Eta hemendik aurrera Goitb-ko "Xeheberri" programan hartuko dute parte. **Amagoia Lasagabasterren** aurpegia ere sarri-sarri ikusten dugu Goitben, orain "Hamaika magazin" saioa aurkezten ikusiko dugu eguenetan. Hainbat txutxumutxuz informatuko gaituzte hirurek. Beste atxabaltar bat ere Goitbn hasi zaigu lanean eta ez edozelako postuetan. **Andoni Urzelai** Goitb-ko zuzendari berria da. Zorionak eta animo guztioi.

Mus txapelketako irabazleak ez genituen telebistan ikusi, baina hauek ere nahikoa meritu izan zuten. Guztira 42 bikote izan ziren San Migeletan, eta irabazleak gatzagarrak, **Pequeño eta Cestero**. Kanpokoek eraman behar oraingoan ere txapela. Bigarrenak, barrez, etxe-koak, **Iñaki Arana** eta **Modesto**, hirugarrenak **Felipe** eta **Xabier** eta laugarre-

nak **Vicente** eta **Luma**.

San Migelekin jarraituz, Murruxok zozketatu zituena txerrikumeek ikuskitzen bikaina eskaini zuten. Irabazleak aurkitzea kostatu zen arren, azkenean txerrikume bat **Axun Zubia** eskoriatzarrarentzat izan zen, bigarrena, barrez, **Ibai Iregi** rentzat, eta 1821 zerbaki-duna auskalo norentzat.

Ondorengo bikoteak, barrez, ez zuen txerrikumerik jaso, baina gustura gelditu ziren herriko zaharrenak izateagatik jubilatuen egunean jaso zuten opariaz. **Juana Arranz** eta **Julian Elorzak** opari edarra jaso zuten.

Gure elkarte eta fundazioetan izango diren langile aldaketa batzuk aipatuko ditugu ondoren. Loramendi elkarteak langile berria du. **Eneritz Urrutiaren** ordean **Nerea Elorza** ikusi ahal izango dugu hemendik aurrera euskararen aldeko ekintzak antolatzen. Besetik, Gizabidea fundazioak ere lehendakari berria du. **Jesus Mari Herrastik** 10 urte eta gero **Javier Gantxegi** bergararrari utzi dio bere lekua.

Aldaketak aldaketa bihurtik aurrerako zubiak hortxe jarraitzen du. Jai duzenok ondo pasatu, gu ere hortan saiatuko gara eta.

M. J. Arzak



Estupor y temblores

Amélie Nothomb
Anagrama, 2000-10-19

Liburu honetan neska europar batek japoneko enpresa batean lanean pasatzen duen urtebete xehebrea kontatzen digu. Itzultzaile moduan sartzen bada ere, beste lan batzuk bidaliko dizkiote, bere iritzia inoiz aintzat hartu gabe; eta egoera iraingarri mordo bat jasan ondoren, azkenean komunak garbitzen bukatuko du. Nobela autobiografikoa da, eta enpresa handietan ematen den jerarkizazioa eta zentzugabekeria oso agerian jartzen dituena. Ironia eta umore berezia erabiltzen ditu autoreak Kafkaren liburuetan agertzeko moduko egoerak deskribatzeko orduan.

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN

Hona hemen gaurko akatsa.

- Ainhoa, lehen ikastolara oinez etorten ikusi detsut.
- Zer ikusi dostazu? Aurpegia ala soinekoa?
- Ainhoa, lehen ikastolara etorten ikusi zaittut.
- A bai, gaur oinez etorri naiz eta.



Denetik

Betaurreko graduatu batzuk aurkitu ziren Haizea taberna ondoan. Udaletxera zuzendu.

Opel Corsa SS-BB salgai. 15.000 km. Berri berria. 943 79 27 30.

Atiko bat erosiko nuke hemen inguruan. Tel.: 670053273.

Opel Astra GSI 115 cv salgai. 1993. urtekoa. Txuria. Tel.: 943 77 09 23. (Roberto).

Piragua salgai. Whip, it. Arraunekin, "cubrebañera" eta bi globorekin. 130.000 pta. Tel.: 943 79 78 36.

Voswagen Polo diesel 1.9 salgai. SS-AX matrikuladuna. Tel.: 609541613.

Ford Sierra 2000 kotxea salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 68 63.

Opel Astra 3/5 1.i GT salgai dago. Matrikulazio urtea: 07 - 1993. Kontadoreko km-ak: 72.000. Tel.: 943 79 00 47/639939587.

Kawasaky Volcan 800 motorra salgai. 900.000 pta. Tel.: 943 77 08 69.

Iragarkiak

Sail honetan jartzen diren iragarkiak DOAN dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Aretxagazetak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik.

Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura.

Gaixotasun arazoengatik negozioaz ezin garelako arduratu, martxan dagoen denda alokatzen da Aretxabaletan. Tel.: 626 379 326.

Bigarren eskuko ordenagailu portatila erosiko nuke. Tel.: 943 79 77 85.

Txahalak salgai kongeladoran sartzeko. Labeldunak eta natural hasitakoak. Bildotsak ere bai. Tel.: 689 541 861.

Roller karabana salgai. Aurreko estalkiarekin. Tel.: 943 79 46 84.

Etxebizitza

Andra Mari auzoan garajea salgai. Tel.: 943 79 74 61.

Pisua salgai Aretxabaletan. Andra Mari auzoan. 943 77 13 02.

Errekabarren kalean bi lokal alokagai, 34 m²takoa bata, eta 36koa bestea. Tel.: 943 79 20 48 /943 77 14 11.

Pisua salgai Arronizen (Nafarroa). Lizarratik 15 kmtara. 90 m² + 40 m² baxua. Egoera ona du eta prezio egokia. Tel.: 941 43 10 19.

Etxebizitza salgai. Otalora, 10 2 ezk. Tel.: 943 71 46 57.

Langile bikote gazte bat gara eta Aretxabaleta edo inguruan errentan hartzeko estudio edo pisu txiki baten bila ari gara. Tel.: 943 13 22 63.

Pisu bat konpartitzeko gertu nago Iruinean. Lekurik baldin baduzue deitu: 943 79 39 10.

Garajea salgai/alokagai Murubiden. Tel.: 639418106. (Ilunkaran deitu).

Aretxabaleta zentruan 94 m² etxebizitza salgai. Eguzki begia eta egoera onean, hiru logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Kalefazioa eta ganbara. Tel.: 943 79 77 30.

Etxeko altzariak salgai, (umeen gela, salako altzariak, sofa...). Bi urte dituzte. Oso merke, gutxia 200.000 pta. Tel.: 943 79 38 16. (Idoia).

Etxea alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 79 32 73/656 75 83 59. Ana.

Etxea salgai Aretxabaletan. Tel.: 659450579.

Etxe bat alokatu nahi dut Aretxabaletan. Tel.: 943 77 19 81.



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero
Dekorazioa:
Soraya Arquero

BEIRALAN



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

KRISTALDEGIA Herriko plaza, 8 behe
☎ 943 79 81 78 ARETXABALETA

Lana

Alemaneko klase partikularrak ematen ditut.

Aleman filologian lizentziatua naiz.

Tel.: 943 79 57 03.

Arrasateko arrandegi batean emakume euskalduna behar da goizez lan egiteko. Gidabaimena beharrezkoa da. Tel.: 943 71 48 61/946820373.

Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko. Astean bi ordu. Tel.: 943 79 83 90. (22:00etatik 23:00etara)

Zerbitzaria behar da Aretxabaletako taberna batean egun erdiz lan egiteko. Tel.: 943 79 29 36.

Bi ume zaintzeko (16:30etik aurrera) emakumea behar da. Tel.: 666691567.

Estetizistak, estilistak,

laguntzaileak eta saloiko arduradunak behar dira Gasteizerako.


Tel.: 945 12 09 20.

Gabonetan Arrasateko Txikilandian aritzeko begiraleak behar dira. Urriaren 18a baino lehen Txatxilipurditik pasatu edo deitu 943 79 54 46 telefonora.

Lan deialdi publikoak

Ingurugiro zerbitzuaren arduradun plaza bat betetzeko lehiaketa-opozizio irekiaren deialdia. Deba Garaiko Mankomunitatea. Epea: 20 eguneko epea EAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita..

Administrari laguntzaile lan poltsa egiteko deialdia. Deba Garaiko Mankomunitatea. Epea: 20 eguneko epea EAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

URDAITEGIKO IKASLEA. Deba Garaia..

Erref.: 38835/2

BILTEGIKO BURUA. Arabako lautada.

Erref.: 38771/1

ESTETIKAKO MEDIKUA. Arabako lautada.

Erref.: 38528/2

AUTOESKOLAKO IRAKASLEA. Gasteiz.

Erref.: 3822/5

AUTOCAD IRAKASLEA. Arabako lautada.

Erref.: 39307/1

SUKALDARIA. Gasteiz.

Erref.: 37769/1

OSASUN LABORALEKO IRAKASLEA. Deba Garaia.

Erref.: 39309/1

MUSIKAKO IRAKASLEA. Arabako lautada.

Erref.: 39063/3

Langaiko lanpostu hauetako bat interesatuz gero, ondorengo telefonoetara dei daiteke:

Bastida akademia: Aintzane Gallastegi 943 79 35 33

Deba Garaiko Mankomunitatea: Alicia Martinez 943 79 30 90

Arrasateko Udala: Marga Garmendia 943 79 09 00

LEIBAR

arrandegia

Mitarte Kalea, 1

Tel.: 943 77 13 79

ARETXABALETA

**ARBULO HARATEGIA**

Santa Kurtz, 5

Tel.: 943 79 02 24

ARETXABALETA

GEMES

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaleta

Hies berria

943 79 26 99

Iber

★ Loteria ★
✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2

Tel.: 943 79 04 39

**T
X
I
L
A
R
R
A****ELIKADURA BEREZIA**

Durana, 35

Tel.: 943 79 10 15

Loramendi, 9

Tel.: 943 79 44 28

ARETXABALETA

IKASTAROAK

■ HEZKIDETZA IKASTARO TEORIKO PRAKTIKOA

Emakunde eta Arrasateko Udalak aukera berdintasunerako hezkuntza ikastaroa antolatu du. Ikastaro teoriko praktiko horren helburuak hezkidetzan oinarrituko prestakuntza jasotzea eta horri loturiko praktikaldia egitea dira. Emalea Urtxintxa astialdiko eskola izango da. Ikasturtea urritik ekainera luzatuko da. Izen ematea Arrasateko Udaleko Emakume edo Hezkuntza sailean egin daiteke urriaren 18a artean.

■ LAN ORIENTABIDE IKASTAROA

Arrasateko emakume sailak emakumeak lan mundura hurbiltzeko ikastaroa antolatu du. Ikastaroaren helburua lana topatzeko orientazioa ematea da. Graduatu eskolarra, lehen mailako ikasketak dituen emakume langabetuei zuzenduta dago. 42 ordu izango dira guztira urrian hasi eta abendura bitartean. Izena eman gura izanez gero lehenbailehen 943 79 41 39 telefonoan egin daiteke.

URRIA

14 ZAPATUA

■ BASOTXOTIK ERRIOXARA IRTEERA

Herriko jubilatua Herrioxako Arnedo herrira urteera egingo dute. Urteeran Logroño ere bisitatuko dute.

■ KLUB ARTEKO PILOTA PARTIDUAK

Arratsaldeko 5etatik aurrera klub arteko hainbat partidu jokatuko dira Iturrigorri frontoian.

17 MARTIZENA

■ DIAPORAMA

Jose Ramon Agirrek Nepali buruzko diaporama eskainiko du Loramendi elkartearen eskutik. Udaletxe zaharrean izango da arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

21, 22

■ ERROBIRA PIRAGUA URTEERA

Murrukixoko mendizale elkarteko piraguismo sailak Errobi ibaira piragua urteera antolatu du. Ezinbestekoa izango da federatuta egotea. Interesatuak Murrukixoko lokaletik pasatu urriaren 17an, martizena, arratsaldeko 7:30etik aurrera.

22 DOMEKA

■ IV. GASTRONOMIA ETA FOLKLORE JAIALDIA

Dantzariak goizean kalejira egingo dute herriko kaleetan zehar. Ondoren plazan dantzaldiak izango dira goiz eta arratsaldean. Egun guztian zehar, bestalde, herrialde desberdinetako platerak eta edariak gozatu ahal izango dira plazan.

IKASTAROAK

■ YOGAKO HASIERA IKASTAROA

Ikastaro honetan yoga zer den eta zer ez den aztertuko da eta bere helburuak ere jakinaraziko dira. Horrez gain, ariketa garrantzitsuenak egingo dira. Urriaren 9tik azaroaren 13a arte astelehenetan emango da. Orduetgia arratsaldeko 7:15etatik 9:15etara. Dagoeneko hasita badago ere, apuntatzeko aukera dago. Tel.: 943 79 88 53 / 616 96 57 95.

■ JOSTEKO TEKNIKAK ETA ESKULAN IKASTAROA

Kultura sailak josteko tekniken (Richeliu, bordatu ingelasa...) eta eskulanetako ikastaroa antolatu du. Josteko teknikak eguenetan emango dira goiz eta arratsaldean. Eskulanetako ikastaroan hainbat arlo landuko dira: dekorazioa, pintura, panpinak, wandal... Azken hau astelehen eta eguenetan arratsaldean eta martizen eta eguaztenetan goiz eta arratsaldean emango da. Izen emateko kultur etxera zuzendu daiteke.

BAITAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arriobe

Aretxagazeta

Zorion agurrak



Pako Unanue
Urriak 4
Zorionak etxekoan partetik.



Kizkitza Zillaurren
Urriak 11
Etxekoan partetik zorion bero-beroak eta muxu haundi bat.



Pilar Gabilondo
Urriak 12
Zorionak tia Pilar.



Josu Arenaza
Urriak 12
Zorionak eta ondo pasau, koadrilakoen partetik.



Tino eta Pili
Urriak 14
Zorionak familiakoan partetik eta ondo pasa ezkon bidaian.



Nerea Trigo
Urriak 15
Aita ama eta Maiten partetik zorionik beroenak.



Aitor San Migel
Urriak 19
Urruti zauden arren, zure koadrilakoen partetik zorion bero-beroak.



Jose Seijo
Urriak 20
Zorionak etxekoan partetik.



Carlos Martin
Urriak 20
Zorionak zure emaztea, Nahia, Ane eta Endikaren partetik.



Igor eta Arantzazu
Urriak 21
Ondo pasa zuen ezkontzan eta ezkon bidaian. Zorionak.

Bide batez zorion bero-beroak aita xori urriaren 22an bere urtebetetze eguna delako. Markel eta familiako guztien partetik.



German Gonzalez
Urriak 23
Zorionak lagun eta familiartekoan partetik.



Maria Luisa Zuazua
Urriak 23
Zorionak eta muxu haundi bat Markel, Gaizka eta etxekoan partetik.

Atal honetan zorion agurrak argitaratu nahi izanez gero, Aretxagazetara zuzendu. (Durana, 11 2. solairua).

Txistuak • Txaloak

Agintariak edo boterea herritik gero eta urrunago egon, gero eta zailagoa da zeozer lortzea. Lariñuko eta Arientzako bideak Foru Aldundiarenak dira, eta oso egoera kaxkarrean egon arren, noiz konponduko dituzte? Ia ezin da bertatik kotxez pasatu, poliki-poliki pasatu beharra dago, bestela, kotxea laster apurtuko zaigu. Foru Aldundiko langileak behin baino gehiagotan pasatzen dira auzo haueetatik, baina aldaketarik ez dago. Lehentasuna badirudi beste bide batzuk dutela. **Txistua**, beraz, gai horretan erantzunkizuna dagokionari eta ea laster behar den moduko bideak aurkitzen ditugun gure auzoetan.



Jaiotakoak

Marina eta Carla Quintas Gonzalez

Irailaren 27an.

Hildakoak

Iñaki Elorza Igartua

Irailaren 30ean. 21 urte.

Honorio Segovia Villar

Urriaren 7an. 71 urte.

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Buskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxiko M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



Mendiolarrak dotrinan

Lehen ez zen gaur beste argazki ateratzen. Noizean behin fotografoa pasatzen zenean orduantxe akaso. Mendiolatik argazkilaria pasa zen batean ateratakoa da goiko argazkia ere, orain 50 urte inguru. Elizakua baserriaren aurrean dotrinako neska-mutilak eta maistrak dotore jarri ziren erretratu makinari begira; mutiko gehienak goian eta neskak beheko iladatan. A ze koadrila pilatu zen, gainera.

Argazkikoak goitik ezkeretik eskumara: Julian Arenaza, Juan Mari Gastiasoro, Miguel Anduaga, Ramon

Arenaza, Seberiano Iturbe, Jesus Madinabeitia, Faustino Gastiasoro, Juanito Aldai, Juan Felix Madinabeitia, Jose Mari Arando, Santi Arkauz, Isidoro Arrese, Felipe Arkauz, Pedro Mari Iturbe, Felix Arrese.

Bigarren iladan: Juli Arrese, Josefa Arenaza, Martina Arando, Maria Pilar Arenaza, Lucia Gastiasoro, Pilar Jausoro, Mari Tere Arkauz, Rosario Arando, Josefa Jausoro, Maritxu Anduaga, Mertxe Arando.

Hirugarren iladan: Jesusa Arando, Espe Iturbe, Jesusa Arenaza, Marilu Arkauz, Angelita Arenaza, Mari Kar-

men Gastiasoro, Irene Arriola, Maria Luisa Iturbe, Pakita Arando, Teresa Arenaza, Arantxa Arriola, Maria Justina Lete, Arantxa Bengoa, Mari Karmen Jausoro, Mertxe Arenaza, Mari Angeles Arkauz.

Behean: Maritxu Iturbe, M.^a Eugenia Arenaza, Joxe Madinabeitia, Jose Mari Arkauz, Loli Iturbe, Tomas Madinabeitia, Jesus Alday, Felipe Arrese, Maxima Arando, Maria Pilar Arrese.

Argazkia: Arrate Arkauz
Informazioa: Arrate Arkauz

TABERNA eta JATETXEEN GIDA


Zaraia taberna

**MANTEKA
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 85 57

Express akeitegia



Santa Kurtz, 16
☎ 943 79 23 43

zure gustoko giroa

Gurea taberna

Jatetxea eta
taberna
GUREA

Eguneko menuak

Durana kalea • 943 79 20 64

Dorleta taberna

Dorleta

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8 • ARETXABALETA
☎ 943 79 94 15

Arlutz taberna

TABERNA
ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34

Gustoko musika

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 32 34

Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 943 79 92 01

Mitartegarai

Mitartegarai
Jatetxea

Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 17 51



Mendiola erretegia

ESKORIATZA
ERRETEGIA
MENDIOLA
Tfno 714345

*Bazkariak
eta afariak*

*Astelehenetan
itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

Bazter alde jatetxea



*Sasoiko
jakiak
giro
onenean*

Galartza auzoa
☎ 943 79 24 58
ARETXABALETA

Amets taberna



Taberna eta kafetegia

Iparragirre, 4 • 943 79 01 29
Aretxabaleta

Basabe jatetxea

Menu eta afariak



Basabe poligonoa • 943 79 91 84

Josu harategia/taberna

*Josu
harategia
taberna*

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte, 1
Tel.: 943 77 03 08



Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETA
☎ 943 79 20 67

Urbaltz taberna

URBALTZ
TABERNA
URBALTZ
taberna

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

Garai berrietan ere...

Txukuntasuna



Argitasuna



Erosotasuna



Osotasuna



Lasaitasuna



hemen aurkituko duzu

grupo



Amuebladora
Mondragones